



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2025-2028

LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUA

Osoko bilkura:

Ainara Herce San Martín, presidentea

Arantza González López, kontseilukidea

Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea

Josu Aguirre Goitia, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), adierazitako kideez osatua 2024ko abenduaren 20an eginiko bileran, 2025-2028 aldirako Lehiaren Euskal Agintaritzaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du.



AURKIBIDEA:

I.	AURREKARIAK	3	
II.	ERABAKI DU:	4	
ERANSKINA: LEA/AVCREN 2025-2028 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN			
ESTRATEGIKOA			5
I.	Izaera juridikoa	5	
II.	Planaren erakunde- eta denbora-eremua.....	5	
III.	Dirulaguntzen lerroak	5	
1.	Lehiaren arloko bekak.....	6	
2.	<i>Compliance</i> -programak ezartzeko dirulaguntzak.....	6	
3.	Lehiaren arloko lan akademikoentzako sariak	6	



I. AURREKARIAK

1. 20/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoak, 6.1 artikuluan, berariaz ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek aurretik planifikatu behar dituztela emango dituzten dirulaguntzak plan estrategiko baten bidez. Plan horretan zehaztu behar da, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez, zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epetan lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dituzten eta, dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, planaren helburuarekin erlazionatutako ekintzak eta adierazleak zein diren.
2. Aurreikuspen horretan agindutakoa betetzeko eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 2015eko irailaren 18ko 1/15 Zirkularrean ezarritakoarekin bat etorriz («*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sail guztiek, eta baita dirulaguntzen programen sustatzaile diren Erakunde Autonomiadunek eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoek ere, dagokien Plan Estrategikoa onartu beharko dute. Bertan, dirulaguntzei buruzko jarduera guztia jasoko dute (...) Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorreko programen aurrekontu-memoretan jasotako helburuak, ekintzak eta adierazleak hartu beharko dituzten kontuan*»), bidezkoa da 2025-2028 aldirako Lehiaren Euskal Agintaritzaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea.
3. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legeak Lehiaren Euskal Agintaritzza sortu du Administrazioako erakunde autonomo gisa, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia, berezko nortasun juridikoarekin eta bere eginkizunak betetzeko jarduteko gaitasun osoarekin.
4. Plan hau LEA/AVCren dirulaguntzen politika planifikatzeko tresna bat da, 2024-2028 aldirako Jarduketa Plan Estrategikoaren esparruan. Planaren xede orokorra da Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren jarduera ekonomikoetarako buruzko lehia eraginkorraren baldintzak sustatzea, hobetzea eta bermatzea, eta, horretarako, indarrean dagoen legeriak unean-unean ematen dizkion ahalmenak baliatzen ditu, bai eta arlo horretan eragile ekonomiko eta sozialak, erakunde publikoak eta herritarrak sentibilizatzea eta haiei prestakuntza ematea ere.
5. Plan hau egiteko, lortu nahi diren interes publikoak aztertu dira eta planaren indarraldian aurreikusitako baliabideekin alderatu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorren Proiektua erreferentziazat hartuta. Hori dela eta, kontuan hartu behar da Legebiltzarrean behin betiko onartu ondoren proiektuak izan ditzakeen aldaketek eragina izan dezaketela Plan honetan.
6. Nolanahi ere, ohartarazi behar da, abenduaren 21eko 20/2023 Legean xedatutakoaren arabera, plan honek lau urteko indarraldia duela, programatikoa baino ez dela, ez duela arau-



edukirik, eta, beraz, ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen; aitzitik, haren eraginkortasuna dirulaguntzen lerroak onartzearen eta abian jartzearen mende dago, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideen arabera.

7. Planak hiru ekimen jasotzen ditu: i) lehiaren arloko eta LEA/AVCren berezko funtzioei buruzko prestakuntza unibertsitateko tituludunentzat; ii) enpresek lehiaren arloko konplimendu-programak hartzea eta ezartzea sustatzea; eta iii) unibertsitateko ikasleek lehiaren arloko lan zientifiko-akademikoak egitea sustatzea.

8. 2025. urterako, Planak gaur egun izapidetzen ari diren Euskal Autonomia Erkidegoko 2025erako Aurrekontu Orokorren proiektuaren aurreikuspenak jasotzen ditu; hurrengo hiru urteetarako, berriz, erabilgarri dauden baliabideen zenbatespena egiten du. Hori guztia, ekitaldi horietako bakoitzeko aurrekontuen legea onartu ondoren, plana behar bezala egokitu eta osatu ahal izango da, ekitaldi bakoitzeko dirulaguntzen urteko plana erantsita.

9. Horregatik guztiagatik, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Lehiaren Euskal Kontseiluak honako hau

II. ERABAKI DU:

LEHENENGOA: LEA/AVCren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea. Erabaki honen eranskinean dago jasota.

BIGARRENA: Erabaki hau argitara dadila agintzea, dagozkion bitarteko ofizialen bidez eta, betiere, LEA/AVCren webgunean argitaratuta: <https://www.competencia.euskadi.eus/>.

HIRUGARRENA: Plana gauzatzera bideratutako urteko zuzkidura ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legeek ezartzen dutenera egokitu beharko dira.



ERANSKINA: LEA/AVCREN 2025-2028 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

I. Izaera juridikoa

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (DPE) kudeaketa-tresna programatikoa da, eta ez du arau-mailarik. Beraz, ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen onuradun izan daitezkeenentzat, eta ez dio administrazioari eskubiderik edo betebeharririk sortzen. Horien eraginkortasuna dirulaguntzen lerroak onartzearen eta abian jartzearen mende egongo da, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideen arabera.

II. Planaren erakunde- eta denbora-eremua

DPEa LEA/AVCren dirulaguntzen politika planifikatzeko tresna bat da, eta eragile ekonomiko eta sozialak, erakunde publikoak eta herritar guztiak lehiaren arloan prestatzeko eta sentsibilizatzeko helburua lortzen laguntzeko helburua du.

LEA/AVCren 2024-2028 aldirako Jarduera Plan Estrategikoan jasotako ildo estrategikoen eta helburuen barruan sartzen da. Plan horrek LEAren eginkizun orokor gisa ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan gauzatutako jarduera ekonomikoei dagokienez lehia eraginkorraren baldintzak sustatzea, hobetzea eta bermatzea, bai eta gizartea arlo horretan prestatzea eta sentsibilizatzea ere.

Denbora-eremuari dagokionez, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua honako hau ezartzen du: *«[plan estrategikoei] lau urteko indarraldia izango dute, non eta, barne hartzen dituzten jarduketan izaera dela-eta, epe luzeagoa behar ez den; egoera hori behar bezala arazoitu beharko da dokumentuan bertan».*

2025eko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025erako Aurrekontu Orokorren Proiektuaren aurreikuspenak sartu ditu DPEk, Gobernu Kontseiluak 2024ko urriaren 29an egindako bilkuran onartutakoak. Hurrengo hiru urteetarako —2026, 2027 eta 2028—, berriz, erabilgarri dauden baliabideen zenbatespena egin du. Nolanahi ere, ekitaldi horietako aurrekontuen legea onartu ondoren, Plana behar bezala egokitu eta osatu ahal izango da, eta ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Plana erantsiko zaio.

III. Dirulaguntzen lerroak

Hiru dira DPEk jasotzen dituen dirulaguntzen lerroak.



1. Lehiaren arloko bekak

Lehiaren arloko beken deialdiaren helburua lehiaren kultura zabaltzea da, eta, horretarako, bekak ematen zaizkie LEA/AVCren jardun-eremuei dagozkien gaietan beren lanbide-prestakuntza osatu eta garatu nahi duten goi-mailako unibertsitate-tituludunei (graduatuak, lizentziaduna edo titulazio baliokidea), LEA/AVCren egoitzan bertan prestakuntza-praktikak eginez.

2. *Compliance*-programak ezartzeko dirulaguntzak

Onartzen diren deialdien helburua izango da lehiaren kultura handitzea eta zabaltzea enpresa-eremuan, eta diruz lagunduko dira *compliance*-programak diseinatzea eta ezartzea, enpresei lehia-arauak betetzen laguntzeko eta, azken batean, merkatuen funtzionamendu lehiakorren alde egiteko.

3. Lehiaren arloko lan akademikoentzako sariak

Euskal unibertsitate-sistemako ikasleek zuzenbideko edo ekonomiako graduoko titulazioak, gradu-amaierako lanak (GAL) edo master-amaierako lanak (MAL) egin ditzaten bultzatzea eta sustatzea izango da sarien helburua. Lan horiek lehiaren sustapenari buruzkoak izango dira, eta bi alderdi izango dituzte: batetik, lehia askearen aurkako jokabideak identifikatzea, eta, bestetik, merkatu lehiakorrak izateak gizarte osoari dakarzkion abantailak identifikatzea, eta, azkenik, lehia murrizten, mugatzen edo faltsutzen duten edo horretara irits daitezkeen arauen edo jardueren ordenamendu juridikoa araztera bideratutako proposamenak egitea.

**ARDATZ ESTRATEGIKOA: LEHIAREN KULTURA SUSTATZEA**

Helburu estrategikoa
Lehiaren arloan eta LEA/AVCren berezko eginkizunei dagokienez prestakuntza ematea unibertsitateko tituludunei.

Dirulaguntza-ildoak
Bekak

Organoa
Presidentetza

Programa
6115 Lehiaren Euskal Agintaritza

Helburuak, ekintzak eta adierazleak
HELBURUA: Lehiaren arloan eta LEA/AVCren berezko eginkizunei dagokienez prestakuntza ematea unibertsitateko tituludun bati.
EKINTZA: Formakuntza
ADIERAZLEA: Prestakuntza-orduen kopurua (1.200 ordu bekadun bakoitzeko).

Compromisos presupuestarios		
	Urtealdia	Zenbatekoa (€)
4 Kapitulumua	2025	15.000
	2026	15.000
	2027	15.000
	2028	15.000

Zer sektoreri dago zuzenduta
LEA/AVCren jardun-eremuei dagozkien gaietan beren prestakuntza teoriko-praktikoa osatu eta garatu nahi duten goi-mailako unibertsitate-tituludun gazteak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOA: LEHIAREN KULTURA SUSTATZEA****Helburu estrategikoa**

Lehiaren kultura handitzea eta zabaltzea enpresa-eremuan, merkatuen funtzionamendu ona ekarriko duten compliance-programen diseinua eta ezarpena diruz lagunduz

Dirulaguntza-ildoak

Dirulaguntzak

Organoa

Presidentetza

Programa

6115 Lehiaren Euskal Agintaritza

Helburuak, ekintzak eta adierazleak

HELBURUA: Lehiaren kultura handitzea eta zabaltzea enpresa-eremuan, eta diruz lagunduko dira compliance-programak diseinatzea eta ezartzea, enpresei lehia-arauak betetzen laguntzeko eta, azken batean, merkatuen funtzionamendu lehiakorren alde egiteko.

EKINTZA: Enpresa-eremuan compliance-programak diseinatu eta ezartzea.

ADIERAZLEA:

- Enpresei emandako dirulaguntzen kopurua
- Onartutako compliance-programen kopurua.

Aurrekontu-konpromisoak

	Urtealdia	Zenbatekoa (€)
4 Kapitulumua	2025	20.000
	2026*	20.000
	2027*	20.000
	2028*	20.000

*2025 proiektuan sartu ez den zenbateko zenbatetsia

Zer sektoreri dago zuzendua

Langile autonomoak, ETEak eta mikroenpresak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOA: LEHIAREN KULTURA SUSTATZEA**

Helburu estrategikoa		
Euskal unibertsitate-sistemako ikasleek zuzenbideko eta ekonomiako gradu-titulazioak, lehia sustatzeari buruzko gradu-amaierako lanak (GAL) eta master-amaierako lanak (MAL) egin ditzaten bultzatzea eta sustatzea.		
Dirulaguntza-ildoak		
Dirulaguntzak		
Organoa		
Presidentetza		
Programa		
6115 Lehiaren Euskal Agintaritza		
Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
HELBURUA: Dagokion deialdian zehazten diren baldintzetan, euskal unibertsitate-sistemako ikasleek zuzenbideko eta ekonomiako gradu-titulazioak, lehia sustatzeari buruzko gradu-amaierako lanak (GAL) eta master-amaierako lanak (MAL) egin ditzaten bultzatzea eta sustatzea, Lanok lehia askearen aurkako jokabideak eta merkatu lehiakorrek edukitzeak gizarte osoari dakartzkion abantailak identifikatu beharko dituzte, bai eta lehia murrizten, mugatzen edo faltsutzen duten edo horretara irits daitezkeen arauen edo jardueren ordenamendu juridikoa araztera bideratutako proposamenak egin ere.		
EKINTZA: Formakuntza.		
ADIERAZLEA: Emandako sarien kopurua.		
Aurrekontu-konpromisoak		
4 Kapituluak	Urtealdia	Zenbatekoa (€)
	2025	----
	2026	----
	2027	----
	2028	----
Zer sektoreri dago zuzendua		
Zuzenbideko eta Ekonomiako graduko titulazioetako euskal unibertsitate-sistemako ikasleak.		